

2. Mailakoan hirugarren sailkatu da Jon Rekondo

«Ez nintzen gustura aritu»,
dio aizkolari gazteak ▶ 7



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2005-09-29 ▶ III. urtea ▶ 697. zenbakia ▶ www.tolosaldeko-hitza.info

Etzi, kale animazioa, bertsoaritza sustatzeko

TOLOSA ▶ Antzerkia eta bertsoak uztarturik, ikuskizuna antolatu dute Bertsozale Elkarteak eta Udalak ▶ 2



Onintza Lasa eta Aitor Mendiluze, atzo, aurkezpenean. N. LATABURU

IBARRA ▶

Uzta: «Pozik gaude arauen aldaketa atzera bota dutelako»

«Interes espekulatzailleak» salatu ditu ▶ 6



I. GARCIA

Kulturune berria inauguratu dute

IRURA ▶ Sanmiguelan, jai giroan, Kulturune berria inauguratu zuten atzo irurarrek; gaur, Zaindariaren Eguna, baita Aldaban ere ▶ 4

- ▶ HITZA laguntzen duten harpidedunen artean **ELOLA ALTZARIAK** dendaren eskutik **Tempur** markako bi buruko zerbikal zozketatuko ditugu



Lizardi poeta, 2 • TOLOSA
Tel.: 943 65 29 01

KIROLA ▶

Kutxa Sariako zesta-puntako norgehiagokak

Bihar, 19:30etik aurrera, zesta-puntako Kutxa Sariaren neurketak jokatu dira Santa Luzia pilotalekuan. Lehenengo kadeteen partida izango da: Izagirre eta Bildarratz eskualdeko bikotea Donostia Jai Alai taldearen aurka ariko da. Bigarren, nagusien mailakoa, Orrantziak eta Mujikak Gaztelekuko bikotea izango dute aurrez aurre.

GIZARTEA ▶

Ttentek aisialdi taldearen deialdia

Ttentek haur eta gaztetxoiei aisialdi taldeko kide izateko deialdia luzatu die. Beraz, bertan izena eman nahi dutenek urriaren 3an, 4an eta 5ean izango dute aukera, 18:00etatik 20:00etara, San Frantzisko parrokian duten lokaletan.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
 - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
 - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
 - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
 - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
 - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
 - ▶ **Ibarralde.** Osasun etxea: 672411
 - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
 - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
 - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
 - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
 - ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
 - ▶ **Tolosa.**
 - ▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitza autobus.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurreremendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320

KULTURA ▶

Bertsolaritza bultzateko kale animazioa egingo dute, etzi

11:30ean hasi eta goiz guztian antzerkia egingo dute San Frantzisko ibiltokian zehar; amaiera Beotibar pilotalekuan egingo dute, 13:00ak aldera

NOELIA LATABURU

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren harira, Euskal Herriko Bertsotzale elkarteak, Tolosako Udalarekin batera, kale animazioa antolatuko du, etzi, larunbata, herriko kaleetan. Horrela, 11:30ak aldera hasiko da antzerki ikuskizuna, Kaxkagor taldearen eskutik, San Frantzisko ibiltokian barrena. Lau antzele ariko dira lanetan: bola handi bat bultzatzen duen bat, bertsolari lanetan beste bat, rapero bat eta kubatar bat. Algarak eta ikuskizuna ez dira faltako, beraz, goiz guztian zehar. Amaiera, berriz, 13:00ak aldera emango diote, Beotibar pilotalekuko inguruetan, Tolosako XIX. Gazta Lehiaketarekin bat eginez.

Atzo goizean aurkeztu zuten ekimena udaletxeko batzar aretoan. Bertan izan ziren Onintza Lasa Hezkuntza eta Euskara zinegotzia eta Bertsotzale Elkartearen ordezkari Aitor Mendiluze. Bertsolaritza tradizioarekin lotzen den kultura izaki, eguneraturik dagoela adierazi zuten eta, beraz, honi bultzada emateko sorturiko



Lasa eta Mendiluze, atzo goizean eginiko aurkezpenaren. N. LATABURU

ekimena izan dela kale animazioa.

Bide batez, Bertsolari Txapelketaren berri emateko eta bertara joatera animatzeko ere baliatuko dute larunbatekoa.

Mendiluzek azaldu zuenez, inprobisazio mota ezberdinak batuko ditu ikuskizunak, guztia «bertan izango direnen gozamenerako».

Zendu berri den Joxe Mari

Bertsolari Txapelketa

Eskualdeko lau bertsolari ariko dira Bertsolari Txapelketa Nagusian: Bixente Gorostidi amezketarra, Iruran bizi den Aitor Mendiluze andoaindarra, Jexux Mari Irazu larrauldarra eta Amaia Agirre billabonatarra, hain zuzen ere.

Final handia Bizkaian egingo dute lehendabiziko aldiz —aurreko guztiak Donostian izan baitira—, Barakaldoko BECen. Abenduaren 18an izango da, 11:00etatik 16:30era. Ordura arte, baina, emanaldi asko igaro beharko dituzte gure bertsolariek, final-laurdenak urriaren 9an hasiko baitira, Lekunberriin. ◀

Aranalde apaiz gazteluarraren figura ere gogoan izan nahi dute etzi, «euskal kulturaren eta bertsolaritzaren beraren alde asko borrokatu duen gizonezko izan baita bera».

IKASTAROA ▶

Teknologia berrien ikastaroa, merkatariei

Urriaren 3 eta 4an egingo dute, Kultur Etxean; sarrera doakoa izango da

N. LATABURU

Eusko Jaurilaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo sailak, teknologia berriak merkatariei gerturatu eta erakusteko helburuarekin, Tolosako Kultur Etxean, datorren astelehen eta asteartean, urriaren 3an eta 4an, 09:30etik 13:30era eta 15:00etik 19:00etara, erakustaldi gela bat irekita edukiko dute, non merkatariek doan sartu ahal izango duten eta gertutik ordenagailuak, balantzak, T.P.V., inprimagailuak, WIFI, P.D.A., eskanerra, infor-

matikako aplikazioak... bezalako tresneria eta ekipamenduen funtzionamendua eta erabilgarritasuna ikusteko aukera izango duten.

Gainera, bakoitzari sortzen zaizkion zalantzak eta era guztiak galderak bertan egongo den teknikari batek erantzungo dituen.

Deialdi hau, aipatu teknologia berriak beren komertzioetan jarri dituzten edo eta jartzekotan dauden merkatarientzat dago zuzenduta, eta, beraz, hau oso aukera ona dela esan dute antolatzaileek.

GIZARTEA ▶



Herria, jubilatuen turismo gune

Ikasleentzat eta langileentzat opor garaia amaitu bada ere, jubilatuek badute aisiaz gozatzeko aukera. Turismoa aitzakia bikaina izan ohi da horretarako; hori dela eta, Nafarroatik bisita jasozuen atzo herriak, Erriberriko eta Tafallako jubilatuek bisita gidatua egin baituzten. Tolosako gune garrantzitsuenak ikusi zituzten, hala nola, udaletxe berria, Santa Maria eliza eta Gorrotxategi museoa. NOELIA LATABURU

POLITIKA ▶

Hileko azken ostiraletan bezala

Etixerat-ek deialdia egin du biharko elkarretaratzeetan parte hartzeko

I. ETXEBESTE

«Udakena bero dator, ikusmin handia dago irailaren hasieratik abiatu den urte politikoari begira, garrantzi handiko erabakiak eta akordioak har daitezkeelako. Ikusmin handia dago, beraz, hemendik aurrera zer gertatuko den politikarien agenda berriarekin».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko Etixerat-eko kideen hitzetan, agenda politiko horretan ahoz ezinezkoa izan behar duen puntu garrantzitsua da «*Euskal presoak Euskal Herrira eskubidea eta aldarrikapena*», eta urtero «konpondu gabe»

gelditzen dela diote. Izan ere, «gure herriarentzako bakea eta normalizazio politikoa bilatzeko hain garrantzitsua den konpondu beharreko irakasgaia da behin betikoz sakabaketa politikarekin amaitu beharra, eta, bide batez, euskal preso politikoen estatus politikoren aitortza».

Euskal preso politikoen alde lanean diharduen erakundeko ordezkarien hitzetan, sakabaketa politikaren aurka dau den politikariak «aukera ederra izango dute ikasturte honetan praktika hiltzaile horrekin amaitzeko». Horretarako, bai, «ezinbestekoa da Euskal

Herriko alderdi politikoei zein instituzioei beste aldera begiratzeari utzi, hitzetatik ekintzataras pasatu eta borondate eta maila politikoa izatea». Modu horretara baizik ez baita lortuko «hainbeste sufrimenduri aurre egitea».

Haiek, beren aldetik, eguneroko jardunei heltzeko konpromisoa berretsi dute. Zeren eta «dispertsioaren aurka dagoen edonork eraman baitezake *Euskal presoak Euskal Herrira* aldarrikapena bere auzo, lan-toki, eskola eta etxeko balkoiraino». Azken batean, «aldarrikapenaren ikurra lau haizeetara zabal dezakegu gure



Etixerat-en deia irerantzunez. I. E.

leioetan jarritz, eta, era berean, hilabeteko azken ostiraletan Euskal Herriko herri guztietan egiten diren kontzentrazio isiletan parte hartzeko aukera dugu».

Hala bada, Etixerat elkarteak deialdia egin die herritar guztiei biharko Tolosaldeko eta Leitzaldeko herri gehienetan antolatu dituen elkarretaratzeetan parte hartzeko; ohiko lekuetan eta orduetan izango dira kontzentrazioak. Tolosan, 19:30ean, Trianguloan; Ibarrran, ordu berean, herri sarrean; Alegian eta Amezketan, 19:30ean, ohiko lekuetan; eta Lizartzan, Anoetan, Ikaztegi-tan, Villabonan, Zizurkilen, As-teasun eta Adunan ohiko lekuetan, 20:00etan. Leitzan ere ordu horretan izango da bilkura, Lopeneko atarian, *Euskal presoak etxera, Igor eta Eneko askatu!* lelopean.

POLITIKA ▶

Hainbat lagun Gudari Eguna babesteko

Tolosan eta Leitzan manifestazioa egin zuten hildako militanteen oroimenez

IRATXE ETXEBESTE

Hainbat lagunek egin zuten he-renegun iluntzean Tolosaldean eta Leitzaldean Gudari Egune-ko mobilizazioekin bat, «gudari-ek Euskal Herriaren eskubideen eta askatasunaren alde egiten duten borrokaren erre-konozimendu gisa, ez baitira bakarrik beraien engeaiamen-duan; herriarenak dira».

1975eko irailaren 27an Fran-co jeneralak Juan Paredes, *Txi-ki* eta Angel Otaegi ETKo kide-ak eta Ramon Garcia Sanz, Jose Luis Sanchez Bravo eta Hum-berto Baena Alonso FRAPeko kideak fusilatzea agindu zue-netik 30 urte pasatu dira, eta egun horretatik aurrera mobi-lizazioak antolatu izan ditu ez-ker abertzaleak urtero-urtero «Euskal Herriak bere gudariak ahaztu ez» dituela erakusteko: «Euskal Herriaren eskubideen eta askatasunaren aldeko bo-rroka luze honetan bidean ge-ratu direnak, erbestean dire-nak, sasietan, kartzeletan... erakunde ezberdinetan milita-tuz borroka zintzo eta eredu-ga-

rria egiten dutelako, gure begi-runea azaltzen diegu. Horrega-tik, errepresio eta zigorren gai-netik, gure gudarien aldeko al-darria Euskal Herriko herri eta auzoetan zabaltzen dihardu-gu», adierazi dute eskualdee-tako ezker abertzaleko kideek.

Horixe bera egin zuten atzo Tolosan eta Leitzan. Tolosan, eskualde mailako manifesta-zioa egin zuten 20:00etan Triangulotik aterata. Ertzaintza hurbildu zen bertara, eta ha-sieran iragarritako ibilbidea al-datu behar izan zuten deialdia-rekin bat egin zutenek. Alde Zaharretik egin zuten mobi-lizazioa Plaza Berriraino, eta ma-nifestazioaren ostean omenal-dia egin zieten eskualdeko hild-ako militante abertzaleei.

Leitzan, berriz, elkarretara-tzea egin zuten lehenik deial-diarekin bat egin zuten 40 la-gun inguruk, eta ondoren he-rrian barrera manifestazioan abiatu ziren plazaraino. Azken 30 urteotako gertakizunen in-guruko erreposoa eta salaketa egin, eta *Eusko gudariak* kan-tatuz bukatu zuten.



Hainbat lagunek egin zuten bat Tolosako manifestazioan. IMANOL GARCIA



Leitzan, 40 lagun inguru bildu ziren elkarretaratzean. JAIONE ASTIBIA

EUSKARA ▶

Izen-ematea zabalik da Tolosaldeko AEKn jadanik

Maila guztietako ikastaroak eskaintzen ditu; ikastaro bereziak ere izango dira

I. ETXEBESTE

Tolosaldeko AEKn zabalik da jadanik 2005-2006 ikasturte-arako izena emateko matriku-la epea. Maila guztietako ikastaroak eskaintzen di-tu; behe, erdi eta goi urratse-takoak. Ohiko euskalduntze ikastaroez gain, bestelako ikastaro bereziak ere eskaintzen ditu: EGA, alfabetatze nahiz hizkuntza eskakizune-tarako ikastaroak, gurasoei zuzendutako ikastaro bere-ziak, eta baita merkatari-iei zuzendutakoak ere.

«Aurtengo erronka herri txikietan euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak bul-tzatzea izango da, eta, horre-tarako, Tolosaldeko AEK-k erraztasunak eman nahi di-tu, bere irakasleak taldeak sor daitezkeen herrietara jo-ateko prest egonik. Horren adibide dira Lizartza, Gaztelu eta Villabona azken hiru ur-teotan». Izena emateko 943 59 17 04 telefono zenbakira deitu edo andoain@ae.net. net helbidera mezua bidali behar da.

IRURA-ALDABA ▶ SAN MIGUEL JAIK



Carmen Amezttoy eta Marimi Ugalde zintaren mozketan egiten, atzo, Kulturuneko inaugurazioan. I. GARCIA

Irurako Kulturune berria inauguratu dute jaien baitan

Dantza saioekin ospatuko dute gaur Zaindariaren Eguna Iruran, eta Aldaban herri afaria egingo dute jatetxean

IMANOL GARCIA

Irurak eta Aldabak gaur ospatuko dute jai giroan San Miguel eguna. Baina atzo, bezperan, izan zen ekitaldirik Iruran. Besteak beste, Kulturune berriaren inaugurazioa egin zuten. Loatzo musika eskolakoek jarri zituzten doinuak eta baita ahotsak ere, eta bi dantzari egin zuten agurra. Parrokoaren bedeinkapena jaso ondoren, Marimi Ugalde alkateak eta Carmen Amezttoy —Iruran musika irakaslea izan dena urtetan— zinta moztu eta eraiki-

naren plaka estalgabetu zuten. Segidan, bildu zen jende ugariak mokadutxo bat jateko aukera izan zuen. Ondoren, zikloro-jatea egin zuten, jaletan lehenengo aldiz, eta 60 irurar inguru bildu ziren bertara.

Gaur, Zaindariaren Egunean, Iruran ekitaldi ugari izango dira, batez ere dantzarekin lotuta. Asteburuan kontzertuek izango dute protagonismoa. Aldaban, berriz, gaurkoa izango da jaien amaiera, herri afariarekin eta txisteak eta bertsoak bilduko dituen emanaldi bereziarekin.

ENARA taberna
Ondo pasa sanmielak!
San Miguel, 2 • 20271 IRURA

Bat Garajea
Ondo pasa Irurako jaietan!
Telf.: 943692205 • Faxa: 943693771 • Ibaiondo Indus. 11 • 20271 IRURA

Joxean
• iturgintza • berokuntza
• aire egokitua • gasa
• inst. industrialak
Jai zoriontsuak opa dizkizue
irurar guztiei
Kale Nagusia, 30 • 20271 IRURA • Tel/faxa: 943693352 • mug.: 656416808

EGITARAUA ▶ GAUR

IRURA

09:00. Goiz eresia txistulariekin.

11:00. Meza nagusia. Gero, dantzari txikien saioa plazan eta hamaiketako Loidisalebe eta Zeberio bertsolariekin.

18:00. Irura, Zizurkil, Villabona, Ibarra eta Anoeta herrietako dantzarien saioa.

20:30. Keltiar Aldea, plazan.

ALDABA

11:00. Meza nagusia. Jarraian, herritarrentzako hamaiketako.

Gauean. Herri afaria Aldabako jatetxean. Amaitezko, Triki-Berto-Txiste-Festa, Joanito Mendizabalekin eta Joxe Ramon Aldasorekin.

ALKIZA ▶ GIZARTEA

Haurrentzako eta helduentzako ikastaroak

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatean izena emateko azken eguna gaur da

ERREDAKZIOA

Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak 2005-2006 ikasturterako Alkizako haurrentzako eskolaz kanpoko ekintzak eta helduentzako ikastaroak antolatu ditu. Haurrentzako jarduerak honako hauek dira: ludoteka, astelehenetan eta asteartetan 16:30etik 17:30era, asteazkenetan 16:30etik 17:00etara, eta ostegunetan 15:00etatik 16:30era; pilota, asteazkenetan 16:00etatik aurrera; kirola ezagutuz, ostiraletan 16:30etik 17:30era; eta eskulanak, taldea sortuko balitz, ostegunetan 16:30etik 17:30era. Ekintzen kostua 20 eurokoa da lehenengo haurarentzat eta bigarrenarentzat 16 euro. Helduei dagokionez, egingo diren jarduerak hauek dira: eskulanak, ostegunetan,

17:30etik 19:30era; eta soinketa astelehenetan eta asteazkenetan, 15:00etatik 16:00etara. Eskulanengatik 10 euro ordaindu behar dira hilean, eta soinketarengatik 17 euro.

Ikastaroetan parte hartu nahi dutenek Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitatera deitu behar dute, 943 69 39 30 telefonora. Gaur da horretarako azken eguna. Diru sarrera egiteko garaian ondoko datuak zehaztu behar dira: ikaslearen izena eta abizenak, ekintza mota eta herria. Kuota ordaintzeko bi aukera daude: Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateren kontu korrontean diru sarrera egin (Kutxako 2101 0072078 0010436525 kontu zerbakian), edo kuota helbideratu. Azken honetarako, izen-abizenak, nortasun agiria, helbidea eta kontu korrontea jakinarazi behar dira.

ZIZURKIL ▶ KULTURA

Miguel Otegi buruzko liburuxkaren aurkezpena

I. GARCIA

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak eta Zizurkilgo Udalak Miguel Otegi josulagun zizurkildarrari buruzko liburuxka argitaratu dute. *Lekutzak* izeneko bildumaren bosgarren zerbakia da kale-ratu dutena. Gaur arratsaldean aurkeztuko dute Zizurkil Goiko San Miguel basilizan, 18:00etan egingo den meza-oren ondoren. Jon Unanue Manuel Larramendi Kultur Baz-

kuneko lehendakaria, Marian Lazkano Zizurkilgo alkatea eta Joxin Azkuna Manuel Larramendi Kultur Bazkuneko Zizurkilgo ordezkaria izango dira bertan.

Miguel Otegi zizurkildarra ezaguna da, beste bi josulagunekin batera, txinera-gaztelaniera lehen hiztegia osatu zuelako. «Lan hori oinarri izan da egun Txinaren eta Mendebaldeko herrialdeen artean sortu diren harremanetarako», azaldu du Jon Unanuek.

DESACRISTAL

Autoaren kristaldegia
Auto furgoneta eta kamioi
kristalen muntaia, salmenta eta konponketa
• LAMINA BAIMENDUEN INSTALAKUNTZA
SOLAR-CHECK

TAILERRA: Ibaiondo bailara, 17
8.pabilioia • N-1 errepidea. • 20271 IRURA Telf.: 943 69 16 16 • Faxa: 943 69 12 47

Carpintería ATARI, S.L.

AROEZTEGIA

Aroztegi mekanikoa. Obrak eta berrikuntzak.
Eskallera eta altzariak neurritan. Exhebitzietako
eta likal komertzialetarako aroztegia.

E-maila: catari@euskalnet.net
Ibaiondo Industriagunea, 7 • 20271 IRURA • Telf.: 943 69 01 40 • Faxa: 943 69 34 29

AMETZ

ESTANKOA

Tabakoa
Prensa
Goxokiak

M. Goi Angeru enparantza, 2
20271 IRURA
Tel.: 943 69 96 51

ANOETA ▶ TEKNOLOGIA

Udalak Wi-Fi bidezko Internet sarbidea jarri du herritarrentzat

Kable bidezko konexioa sahiesten duen teknologia da; nahikoa da ordenagailu eramangarri bat Udalera eramatea



Udaletxean jarri duten informazio plaketako bat. IMANOL GARCIA

MARTA SAN SEBASTIAN

Anoetako Udalak *Internetarako sarbidea eta Wi-Fi bidezko mugikortasuna* izena daraman programa martxan jarri berri du. Anoetarrek Internetara konektatzeko aukera izango dute hala, kable bidezko konexioa saihestuz. Nahikoa izango da udaletxera gerturatzea eta ordenagailu eramangarri bat eramatea.

Egun gutxi daramatza teknologia berri honek Anoetako Udalean. Eusko Jaurlaritzaren *Euskadi Informazioaren Gizar-tean* egitasmoaren barnean kokatzen da Wi-Fi (Wireless Fidelity) sistemaren ezarpena. Hain zuzen ere, Eusko Jaurlaritzak, SPRI laguntzaren bitartez, euskal administrazioetan teknologia sistema honen instalakuntzaren ezarpena bermatzea lortu du. Hala, 2.845 euroko dirulaguntza jaso du Anoetako Udalak.

Abantaila handiak eskaintzen ditu azpiegitura berritzailerak honek. Udaletxe barnean jarri dituzten konexio puntuetatik, *hot spot*-etatik alegia, internetarako sarbidea lortzen da. Modu honetan, kableen instalazioa ekidin daiteke ordenagailu eramangarrien bitartez. Horretarako, ordenagailu barnean atondutako txartel batzuk jartzea beharrezkoa izango da.

Etorkizunean, inolako kablerik behar ez duen teknologia honen bitartez, udaletxeko langileek barne-kudeaketarako sistemetara, posta elektronikora eta bestelako informazioetara sarbidea izateko aukera izango dute.

Abantaila dezente eskaintzen ditu Wi-Fi bidezko konexio honek. Aipatu bezala, azpiegitura berri honi esker kablearen erabilera ez da beharrezkoa izango. Honez gain, abiadura handiko konexioa ere lortzen da, eta 2,5 GHz banda zabala eskaintzen du Udalak herritarrentzat.

Udaletxe barnean informazio plaka batzuk jarri dituzte interesa duen edonork Wi-Fi eremu batean dagoela jakin dezan.

Zure proiektuek badute, dagoeneko, gure kreditua.

Proiektu bat baduzu, zatoz **kutxara**. **Kreditu bat daukazu, dagoeneko, zuk nahi bezala erabiltzeko.**

Etxea eraberritzeko, auto berri bat..., **zeuk erabaki behar duzu**. Zure konfiantza eman diguzulako, eskerroneko agertu nahi dugu zurekin zure proiektua gauzatzen lagunduz.

LEABURU ▶

Udako ludotekaren argazkiak ikusgai

Gaur arratsaldean argazki erakusketa zabalduko dute, herritarrek ikus dezaten, Gazte Gelan. 18:00etan izango da, eta argazkiak udako ludotekaren inguruak izango dira. Bestalde, euskal dantza eta gimnastika ikastaroa antolatuta dituela jakinarazi du Udalak, eta bi horietan izena emateko 943 67 59 31 telefono zenbakira hots egin behar dela.

IBARRA ▶

Gimnastika erritmikoko eskolak abian

Ibarrako Belabieta Gimnastika Erritmikoko eskolak urrian hasiko du ikastaro berria. Saioa Sorondo eta Laura Cuadrado begirale titulatuen eskutik jaso ahal izango dira eskolak. Izena eman nahi dutenek edo informazio gehiago jaso nahi ezker, 943 67 15 44 (Belabieta kiroldegia), 629 11 20 61, 943 11 70 23 eta 943 01 94 22 zenbakietara hots egin beharko dute.



Belabieta gimnastika erritmikoko eskolako gazteboak. N.LATABURU

IBARRA-BERASTEGI ▶

Zumaiako talasoterapiara irteera

Berastegiko Gaztainondo jubilatutako elkarteak eta Ibarrako Bizi-Nahi jubilatutako elkarteak Zumaiako Zelai talasoterapiara irteera antolatuta dute. Urriaren 5ean izango da, eta irteera horretan negurako tratamenduak eskainiko dira. Izen-ematea Gaztainondo elkartean edo Bizi-Nahi elkartean egingo da, 30 euroren truke (bazkaria barne). Bihar izango azken eguna.

IBARRA ▶

Ez ohiko osoko bilkura egingo dute gaur arratsaldean

Hiri Antolamenduko Arauen Aldaketari buruz hitz egingo dute, besteak beste

ERREDAKZIOA

Gaur, 18:00etan, udaletxeako pleno aretoan, ez ohiko osoko bilkura egingo dute. Bertan aztertuko dituzten gaien artean ondorengoak egongo dira: pasa den abuztuaren 30eko akta onartzea, 25/2005 alkate-dekretua, 2006. urteko ordenantza fiskalak onartzea, UA11 jardueraren unitateko arau-aldaketaren testu bateratua onartzea, Euskal Herria 21 eta Ezeizena, Errekondone eta Papepera Tolosana eremuko Hiri Antolamenduko arauen aldaketari buruz Foru Aldundiari egindako eskakizunaren berri ematea Udaltzari, eta, azkenik, galde eskaeren tartea.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'. Gure eskualdeari buruzko albisteak sartzeko aukera eskaintzen dizu orain TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webguneak. Horretarako, *Zeuk idatzi* izeneko atalean sartu baino ez duzu egin beharko. Gainera, badira irakurgai hainbat albiste interesgarri. Anima zaituzte eta jarri denen eskura zure berria!

IBARRA ▶ POLITIKA

Uzta: «Pozik gaude arauen aldaketa atzera bota dutelako»

«Interes espekulatuzaile eta pribilegio urbanistikoak gelditzeko gai izan gara, eta horretan jarraituko dugu»

IÑIGO TERRADILLOS

«Ibarrako Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa, Ezeizena, Errekondone eta Papepera Tolosana zonaldeari dagokiona, atzera bota du Gipuzkoako Foru Aldundiak; albiste pozgarria da ibarrentzat, gutxi batzuen asmo espekulatuzaileak eta inposatuzaileak oraingoz geldiarazi direlako», adierazi du Uzta plataformak. «Aldaketa horren bidez zonalde horretan 90 etxebizitza berri egiteko aukera eman nahi zuten Udalak, hektareako 125 etxebizitza egin nahi ziren, guztiak salmenta librean; hirigintza arazo mordo dagoen lekuan horiek areagotzea besterik lortzen ez zuten erabakia hartu zuten, herritarren onurak alde batera utzi eta gutxi batzuen interesen alde egin», gehitu du.

Uzta plataformak erabaki honen «bidegabekeria» salatu zuela azaldu du, eta iradokizunak eta alegazioak aurkeztu zituela 2005 urteko urtarrean, besteak beste, honako hauek

jasotzen zirela: arau aldaketan ez zegoela interes publikorik; egin nahi zutena ez zela arau aldaketa puntual bat arau subsidiarioen berrikuskapena baizik, eta hiritar-lurra, izendatu ezin zitekeen lurra izendatu nahi zutela. Horregatik, bertan behera uzteko eskatu zuten Uzta, eta hasi berria zen arau subsidiarioen berrikuspena aztertzeke proposatu.

Halaber, Udalak iradokizun eta alegazio horiei emandako erantzunak «benetan lotsagarriak» izan zirela dio plataformak: lurzorua lege berriaren ondorioz arauen berrikuspena asko luzatu zitekeela, eta gabeziak sortuko zituela Ibarri; nonbaitetik hasi behar zela eraikitzen, eta zonalde horretatik hasiko zirela; jabeagoaren %60 baino gehiago ados zegoelako egiten zutela; inguruko aparkaleku arazoari aurre egiten zitzaiola; biberoko herri garapenerako oztopoa zirela, eta 7.000 biztanle baino gutxiagoko herrietan ez zela behartzen babestutako etxebi-

zitzak egitera izan ziren emandako erantzunak, adierazi dute.

Udalak 2005eko martxoaren 2an egitasmoari behin-behineko onespina eman, eta Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu zion honek behin betiko erabaki zedin. Eta Uzta azaldu duenaren arabera, Diputazio Kontseiluak irailaren 6ko batzarraldian ondorengo erabaki zuten: «Ibarrako Hiri Antolaketako Arauen Aldaketa, Ezeizena, Errekondone, eta Papepera Tolosana zonaldeari dagokion espedienteari behin betiko onespina ez ematea, lurralde-ereduaren aldaketa dakarrelako, eta horren azterketa modu integralean egin behar delako.

Horren harira, Udalaren jarduna «kili-kolo» utzi dutela eta «bi urte hauetako kudeaketarako gaitasunik eza» agerian geratu dela beste behin azaldu du Uzta. Halaber, «interes espekulatuzaileak eta pribilegio urbanistikoak gelditzeko gai izan gara, eta horretan jarraituko dugu», gehitu dute.

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da taberna batean lau orduz lan egiteko. Deitu 675 70 11 78 zenbakira.

Sukaldaria.

Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria eta kamarera behar da. Interesatuak deitu 943 69 19 33 telefono zenbakira.

Banatuzaile bat
behar da baserriar produktuak banatzeko

Lurrian baserriar elkarteak
943 69 20 54

IBARRA ▶

Aurten ere Guraso Eskola antolatu dute herrian

Urriaren 17an hasiko dira eskolak; izena emateko azken eguna urriaren 7a izango da

I. TERRADILLOS

Aurten ere, aurreko urteetan bezala, abian da Guraso Eskola Ibarri. Udako Gizarte Zerbitzuen sailak eta Ibarriko Uzturpe ikastolak elkarlanean antolatzen duten ekimen gurasoen eta euren semeen harremenez eta horien inguruko kezke aritu ohi da. Eskola horiek ematen, beste behin ere, familia terapeuta Maria Jesus Urraga eta Ana Elozegi haren kidea ariko dira.

Guraso Eskola gurasoen haurren adinaren arabera banatu dute, eta bi talde osatu nahi dituzte; talde batean seme-alaba nerabeak, hau da, hamabi urtetik aurrerakoak dituzten gurasoekin osatuko dute, eta beste taldean, berriz, gainerako gurasoekin hartuko dute parte.

Aurtengo ikasturtea datorren urriaren 17an hasiko dela adierazi dute. Ikastaroaren iraupenaren inguruan, berriz, ekaina bitartean luzatuko dela azaldu dute antolatzaileek. Horrela, dena zortzi saio izango dira, eta eskola bakoitzak ordu eta erdiko iraupena izango du.

Halaber, gogorazai nahi dute Guraso Eskolan izena emateko interesa dutenentzat azken eguna urriaren 7a izango dela, eta 25 euro ordaindu beharko dutela.

LEITZA ▶ AIZKORA

Rekondok hirugarren egin du

Nafarroako 2. Mailako txapela Telletxea labaindarrak irabazi du, ezustean

JAIONE ASTIBIA

Jon Rekondo hirugarren gelditu zen lehengo igandean jokatu zen Nafarroako 2. Mailako Aizkora Txapelketan. Ezustekoa eman zuena Telletxea labaindarra izan zen, txapela irabaziz, eta noski, Lehen Mailara igoz.

Huarten jokatu zen finalean bost aizkolari lehiatu ziren txapelaren bila: Rekondo eta Telletxearekin, Belarra, Amillano eta Etxeberria, eta bina kana-

erdiko, beste bina 60 ontzako eta oinbiko bana (eta ez bi, prentsa-oharretan igorritakoaren arabera) zituzten ebaki beharrak. Hasieratik bukaerara aldaketa handiak gertatu ziren plazan, batez ere hiru aurreneko aizkolarien artean: leitzarria jotzen zuten denek garaile, hasierako enborretan, 20 segundoko alde kendu zioten honi Telletxeak zein Belarrak ere, baina oinbikoan Rekondok aurre hartu zien, eta 10 segundoko alde ere kendu. Horrela



Jon Rekondo, Urrezko Aizkorako txapela irabazi zuenean. JAIONE ASTIBIA

mantendu ziren gutxi-asko distantziak, eta leitzarria aurrera zihohan. Baina, azken aurreko enborrean epaia, kortea itxi egin zitzaion honi eta enbore-

an buelta hartu beharra izan zuen; zuen alde hortxe galdu, eta orpo-orpo zetozkion biak aurre hartu zioten. Azken aizkorakada eman arte ez dago

SAILKAPENA ▶

FINALEKO EMAITZAK

1. Jon Tellebena	18'37"
2. Luis Mari Belarra	18'39"
3. Jon Rekondo	19'32"
4. Dabid Amillano	22'18"
5. Jexux Etxeberria	24'27"

jakiterik zeinek irabazten duen, eta igandeko finalean ere horixe gertatu zen: Belarrak baino aizkorakada bat lehenago, 2 segudoko aldearekin, Jon Telletxeak irabazi zuen Nafarroako 2. Mailako txapela.

Jon Rekondok hirugarren bukatu zuen. Ez zegoen oso konforme leitzarria, «aizkoran ez nintzen gustura aritu, anaia eta aitak ere halaxe esan zidaten gero», zihoen berak. «Gainera, azken aurreko enborra arte irabazten joanda, horrela galtzea ere... Akaso ez nuen irabaziko, baina aurreko lehian hortxe izateko itxaropena banuen», baieztatu zion atzo HITZARI: «Hurrengoan beharko».

GIZARTEA ▶

Bilbora joateko autobusean izena emateko deia egin dute

J. ASTIBIA

Bilbon etzi, larunbata, *Eskubide zibil eta politikoen alde. Orain herria, orain bakea* lelopean egitekoa den manifestaziora joateko autobusa aterako dela eman dute jakitera. Horrela, autobusean joan nahi duenak Torrean izena emateko eskatu dute, «lehenbailehen» egiteko ere.

Manifestazioa Bilboko Aita Donostia plazatik 17:30ean abiatuko denez, Leitzatik 14:00etan aterako da autobusa, Oialde parean, ohiko lekutik.

LEITZA ▶ IKASTAROAK

Ehoziri-lan eta 'patchwork' ikastaroak

Liño Putzu elkarteak emanen ditu; izena emateko epea jarri dute



Ehoziri-lanak, nahiz patchwork-a egiten, elkarteko kideak. JAIONE ASTIBIA

J. ASTIBIA

Asteartetan, urriaren 4an hasi eta abenduaren 20a arte, 16:00etatik 18:00etarako ordu-

tegiarekin, Liño Putzu elkarteak ehoziri-lan ikastaroa egitekoa da, liburutegi ondoan. Jakitera eman dutenez, gainera, patchwork-eko ikastaroa ere emate-

ko aukerak omen daude, hots, ehun zatiak itxuroso elkartuz ohe-azalak eta egitea, norbaitek nahiko balu.

Baterako nahiz besterako izena emateko, «asteartetan beren egoitzara» joatea besterik ez omen dago, edota «676 52 52 82 telefono zenbakira dei daiteke astearte, asteazken eta ostegunetan», edota «Karrape Irratian ere» egin daitekeela eman dute aditzera. Eskulanak gustuko izan ezker behin behin, jendea ikastaro hauetan parte hartzera animatu nahi dute. «Ehoziri-lanengatik adituek estresaren aurkako erremedio ona dela diote», baieztatu zuten. Horra.

GIZARTEA ▶

Leitzako apaiz laguntzaile ohia Aralarko Santutegian da

J. A.

Mikel Larranbebehere, orain berriro arte Leitzako elizabarrutiko apaiz laguntzaile izandua dena, Uharte Arakilgo elizbarrutira lekualdatu dute, eta Aralarko Mikel Donearen santutegiko ardura-dun izendatu berri dute. Hain zuzen ere, Mikel Donearen eguna izaki, gaur emanen ditu aurreneko mezak han bertan, honako ondorengo ordu hauetan: 10:00etan, 11:00etan, 12:00etan, 13:00etan eta 15:00etan azkena.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Belautza. *Belardo belar metaren ibilerak.* 17:30ean, Kultur Etxean. Iñaki Martiarena *Mattin*-ekin. Galtzaundik antolatuta.

Gaztelu. Gripearean aurkako txertoa. Egun horretan ezin dutenek egunero dute Ibarra, Berastegin eta Lizartzan erizainaren kontsultan txertoa hartzeko aukera, aurretik ordua eskatuz (943 67 24 11).

Leaburu. Gripearean aurkako txertoa. 09:30ean, mediku gelan.

Leitza. Altsasun urriaren 16an egingo den Nafarroa Oinezan ordu batzuetan laguntzeko izena eman daiteke Karrape irratian (948 610914) edo IKA euskaltegian (948 610776).

Tolosaldea. Igandean Leintz bailaran egingo den Kilometroko 05 festara joateko autobusak antolatu ditu Galtzaundik. Izen-ematea, egoitzan (Nafarroa etorbidea, 6), bihar arte, 17:00etatik 20:00etara. Ibarra Gaste Asanbladak ere antolatu du autobusa: izena Zubiaurre eta Karlatz tabernetan eman daiteke, 5 eurotan Ibarra ikasle eta langabetuek, eta 8 euro gainerakoek.

HITZALDIAK

Bidegoian. *Menopausia modu egoki batean bizitzen ikasi.* 18:30ean, Izar Arregirekin. Kultur Astean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Azpiroz, M. L. Amaroz, 9. 943 67 51 28.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

IRRATIA

Txolarre (107,5; 101.2 FM)
11:00. *Tolosaldeko Ahotza*, 14:00ak arte. Eguraldia Joxe Landarekin, HITZAren errepasoa, oharrak...
11:45. Tolosako XIX. Gazta Lehiaketa hizpide, Joxe Migel Goenaga Lizardi elkarteak kidearekin. Ondoren, Bertsozale Elkarteak antolatutako kale animazioa ardatz, Aitor Mendiluzerekin.
12:20. Agenda.
12:30. Gazte Bilgunea.
12:45. Irurako Kulturune berria.
13:00. *Izkutuko koloreak* irrati nobela.
13:15. Lehiaketa eta disko eskainiak.
22:00-23:00. *Gau bero* musika saioa.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Trintxera, Gipuzkoako balkoia

TOLOSALDEA ▶ Bidaniatik Errezil aldera hartuta etxe ikusgarri batekin egingo du topo bidaiariak: Trintxera; 28 urte itxita egon eta gero, berriro dago martxan

NAIARA EXPOSITO / UROLA KOSTAKO HITZA

Errezilgo lurretan badago ere, Bidegoiandik oso gertu aurkitzen da. Hain zuzen ere, Bidaniatik aurrera joan, Errezil eta Azpeitia aldera, eta, halako batean, etxe ikusgarri batekin egingo du topo bidaiariak: Trintxera, Gipuzkoako balkoia bezala ere oso ezaguna den lekua.

Erniora joateko behin baino gehiagotan uzten zuten autoa han mendizaleek lehen. Izan berri diren erromerietan ere, iraileko igandetan, makina bat auto pilatu da bertan, mendira igotzeko abiapuntu ezin hobea baita Trintxera.

28 urtez itxita egon da Gipuzkoako balkoia. Baina martxan da berriro. Azpeitiko hiru lagunek ireki zuten iraila hasieran. Hauen aspaldiko ametsa zen etxe hau ustiatzea eta, azkenean, hilabete askoren lanen ostean, ametsa gauzatzea lortu dute. Jatetxea, landa ostalua eta aterpea ireki dituzte Trintxeran.

Garai batean, Hostal Provincial edo Errezilgo Hostala bezala ezagutzen zen eraikin hori. Eusko Jaurlaritzak zuen haren jabetza. Hainbat urtez irekita egon bazen ere, azken 28 urteetan itxita egon da. Duela gutxi arte.



Inguru ezin hobean dago Trintxera, Gipuzkoako balkoia. NAIARA EXPOSITO / UROLA KOSTAKO HITZA

Inguru paregabea dago Trintxera, Ernio mendiaren magalean. Bertako terrazatik ikusten den paisaia ere ezin hobea da. Horregatik askok eta askok Gipuzkoako balkoia bezala ere ezagutzen dute lekua.

AGURRAK ▶

HITZA,
zorion agurren
tarteak
Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia
bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!

www.sala71.com

irailak 30 ostirala

Ken zazpi + Gari

31

Irekiera 22:00etan
Aurretik 10 € Lehiatilan 15 €